

GURE IRAKURGELA

“OULIPO” DELAKOA, AZKENIK GURE ARTEAN

Manu Lopez Gaseni

Raymond Queneau (1903-1976) idazle frantziarra OULIPO (Literatura Potentzialeko Lantegia) izeneko mugimenduaren sortzailea izan zen, 1960an, Francois Le Lionnaisekin batera. Gerora, Jaques Roubaud, Georges Perec eta Italo Calvino ere oulipokide ospetsuenetakoa batzuk bihurtuko ziren. Taldearen helburu nagusia hertsadura («constriction») edo baldintza zorrotzen pean era askotako testuak sortzea zen. Testu bakoitzaren gidari gisa, hortaz, arau jakinen bat agertzen zen. Batzuetan, arau hori formula matematiko bat zen (Queneau



Liburua: “Estilo-ariketak”
Egilea: Raymond Queneau
Itzultzailea: Xabier Olarra
Argitaletxea: Igela-KM Kulturunea, 2005

bera matematikoa izaki, idatzi zuen lehen testu oulipoarra “Ehun bilioi poema” izeneko poema konbinatorioa izan zen); beste batzuetan, berriz, baldintza ustez sinpleak, hala nola, eleberrri oso bat idaztea “e” letra erabilri gabe, edota testu jakin bateko hitzen ordez hitz horien definizioak erabiltzea. Hala, testu literarioen behin-behinekotasuna azpimarratzen zen, eta literaturaren zentzu transzendental batzertzen: literatura jolas gisa ulertzen zen, surrealismoaren urruneko oihartzunak lagun.

Oraindik orain aurkeztu den liburua Queneauren obra ezaguenetakoa baten itzulpena da:

“Estilo-ariketak”. Bertan, gertaera hutsal baten kontakizun laburra aitzakia eta abiapuntutzat harturik, testuaren 98 aldaera agertzen dira, arestian aipatutako “hertsadura” banari jarraituz. Hertsadurok, gehienetan, baliabide literarioak dira, non eta literatur txantxatxoak ez diren. Literaturari buruzko literatura da, edo, Gerard Genette literatur teoriaran adituak sortu zuen terminoa erabilita, bigarren graduko literaturaren katalogo oso bat. Obra bitxia edo bakana baino, obra bakarra dela diosku itzultzaileak hitzaurre argigarrian. Alde horretatik, dituen ezaugarri bereziak direla medio, iniziatuentzako obra dela ohar-tarazi behar dugu. Eta, arrazoi

beragatik, literaturzale diren guztiak zorioneko daude, literaturaren harribitxi hau euskaraz irakurtzeko aukera dutelako.

Euskaraz ez ezik, frantses jatorrizkoan ere, edizio bestela ere ederra elebiduna delako, eta hori ere eskertzekoa da. Atarian daraman hitzaurrea ezinbestekoa da halako obra berezi baten atzean dagoen gogoeta teorikoa ulertu ahal izateko, baina aukeran trinkoegia; logo-rallye, definiziozko literatura edo S+7 kontzeptuak ondo azaltzeko toki gehiago behar zelakoan bainago. Xabier Olarra itzultzailearen lana, azkenik, egokia eta txalotu beharrekoa da, halako erronka bat onartu eta ederki erantzuteagatik.